

t a r t e a



arnasaren bila

04-05 | kronika

Behi eta idien azoka iragan da Baionan

06-07 | elkarrizketa

Andy Cave alpinistarekin berbetan

10 | mendia

Mendiko segurtasunari buruzko DVDa argitaratu dute

andy cave | alpinista

Itzalpetik mendia arnastera

Erresuma Batuko eskolaren bidetik, **alpinismo garbiaren eredia** eramán du munduko horma eta mendi handienetara **Andy Cavek**. Bere **bizitzaren eta mendiko ibilbidearen inguruko gogoetak eta testigantzak** bildu ditu **'Learning to breathe'** liburuan. Berau aurkezten izan da berriki Bilbon

Ekaitz Agirre

«Garrantzitsuena ez da gailurra, lortzeko modua baizik». Esaldi horrekin laburbildu digu, konbentzitu, Andy Cave mendizaleak alpinismoaz duen filosofia. Gaur egun galtzen ari den eredia dela dio, baina Erresuma Batuko belaunaldi gazteak bide horretan ikusten ditu. Publiko zabalarentzat ezezaguna, mendian goi mailako jarduerak egindakoa da Cave. Horietako batetik abiatuta, Changabang-eko ipar hormaren lehenengo igoera (1997), idatzi du *Learning to breathe* (Arnasten ikasiz) liburua; bere bizitzaren eta mendiko jardueren bizipenen testigantza. Liburua aitzakia, BBK-k antolatutako Mendi Asteko gonbidatuetako bat izan zen Andy Cave. Gaztelania txukunean—Algortan bost hilabetez bizi izan zen— eman dizkio azalpenak **BERRIARI**.

Margaret Tacheri zor omen diozu egun zaren alpinista izatea...

Bai, hala dela esan daiteke [barrez]. Aitaren bidetik meatze batean hasi nintzen lanean, eta 1984an grebara jo genuen meatzariok gobernuak zeraman politikaren kontra protesta egiteko. Gauzak horrela, denbora gehiago izan nuen eskalatzeko eta grebak iraun zuen urte luzea horretarako baliatu nuen. Hori behintzat zor diot Tacheri.

Greban izan zinen tarte horretan lortu omen zenuen Alpine Clubean sartzeko eskarmentua.

Lanera itzuli ginenean argi nuen hilabete batzuetan jarraituko nuela meategian, baina nire bizitza mendiko jardueretara bideratu nahi nuela. Meatzetako iluntasu-



nera itzuli? Tarte hori baliatu nuen mendiko gidari titulua ateratzeko. Urte batez lan egin, eta gero Alpeetara eta Himalayara joatea erabaki nuen, benetako arnas bila.

Lur azpiko klaustrofobiatik munduko horma handietara. Horma horietan, baldintza txarretan, sentitu izan duzu inoiz klaustrofobiarik?

Ez zait gustatzen mendiko dendan lo egitea. Espazioa maite dut eta denda barruan ez naiz eroso sentitzen. Era berean, ez zaizkit espeleologia eta halakoak gustatzen. Mendia askatasuna da niretzat, eta meategi batean lan egin izanak markatu egin ninduen.

Zer oroitzen duzu Alpeetara oso material eskasarekin egindako lehen bidaia haietaz?

Nostalgia handiarekin oroitzen dut garai hura. Ipar aurpegi ezagunak eskalatu genituen: Eiger, Droites, Jorasses Handiak, Dru... Motibazio handia nuen garai hartan, 18 urte nituen eta adin horrekin dena nuen ikusteko, dena ikasteko.

Eta Joe Simpsonekin 21 urte zeni-

tuela Asiara egin zenuen bidaia hartatik zer oroitzen duzu?

Himalayan bost hilabete egin genituen, eta Tupopdan eta Laila Peak mendiak igotzen lehenengoak izan ginen. Bi urte geroago itzuli nintzen, eta oso oroitzen onak ditut. Simpson eta Yates ni baino zaharragoak ziren, esperientzia handiagoa zuten eta izaera oso indartsua. Asko ikasi nuen haiekin.

Zer izan da Joe Simpson zuretzat? Liburuaren hitzaurrea berak idatzi duzu.

Sokalaguna ez ezik, laguna. *Learning to breathe* liburuaren hitzaurrea berak idatzi izana oso pozgarria izan zen. Liburua idazteko adorea berak eman zidan.

Changabang mendiaren ipar horma izan da zure ibilbidean mugarririk nagusia?

Egin dudana jarduera garrantzitsuenetakoa bai, baina ez da bakarra. Alpeetan *Divine Providence* bidea hor dago, Laila Peak mendiaren lehenengo igoera, Eskoziako negu gogorrean izotzean ireki ditudan bideak, Patagonian egindako



Andy Cave, Aiguille Verten eskalatzen, Alpeetan. andy cave

etki
mendidenda
Arropa prezio azin hobean

• Txanarrak eta gutxiak
• Forro polarrak
• Gaxoiak, motzak, botak eta petaketak

EKHI mendidenda - 945 135 859
Korrea 118, behea - 01001 Gasteiz (Araba)
mendidenda@yahoo.es

ak... Jarduera askok ase naute. Dena dela, egia da Changabangeko espedizioak marka handia utzi zidala. Lehenengo aldia izan zen mendian adiskide bat galtzen nuela eta oso esperientzia gogorra izan zen.

Mendia ezberdin bizi duzu igoera haren ondoren eta Brendan Murphy lagun minaren heriotzaren ondoren?

Bai, zalantzarik gabe. Orain neure burua sustatu nahi dut, baina bizitza ahalik eta gehien gozatu. Uste dut bidaiak handiekin hartu behar dizula neurria —noizean behin halakoak egin. Hori egiteko gogoia ere eduki behar duzu; ez halakorik egin zuk zeuk nahi ez baduzu —ez dut sekula ezer egiten hori nire babesleentzat ona delako— hori ez da zuzena eta, gainera, arriskutsua da.

Irakurria dizut, itzuleran Murphyren familiarekin hitz egin arte ez zinela konturatu etxean zenbat sufritzen duten alpinisten senideek.

Mendian gaudenean senideek ez gaituzte ikusten, ez dute gure berri. Badakite arriskua izan baduela alpinismoak, eta espedizio batean joaten garenean arrisku hori bade la onartzea oso zaila egiten zaie. Nik Alpeetan izan nuen istripu bat, 1984an, baina adiskide bat zurekin eskalatzen ari dela hiltzea kolpe gogorra da. Baina, noski, haren senideentzat da galera handiena.

1997an Changabangeko ipar horman igarotako 18 egun beldurgarri haien kontakizuna egiten duzu *Learning to breathe* liburuan. Zein da liburuaren irakasgaia eta ondorioa?

Liburua irakurtzen dutenentzat inspirazio iturri izatea nahi nuke. Alpinista gazteentzat baliagarria izan dadila, baina mendizale ez direnentzat ere idatzi dut. Mendian motibazioa baduzu edozer posible dela esan nahi diet. Baina alpinistakoki ikasgaiak ere bildu ditut liburuan. Estiloa, mendiak igotzeko modua, oso garrantzitsua da, baina huskeria edo huts egite txikiak akaba zaitzake. Hori bezain sinplea da ikasgaia.

Peter Boardman eta Joe Tasker Fundazioaren saria jaso duzu liburuagatik. Ohore handia izan da?

Oso pozgarria izan da. Idazlearen lana bakartia da, eta ongi egindako lanagatik aitortpena jasotzea beti da ohorea.

Tasker, Bonington, Scott... 1970eko eta 1980ko hamarkadetan Himalayan handiak egin zituen belaunaldi hark badu segidarik, ezta? Houlding, Fowler, zu...

Haien jarraitzaileak gara, zalantzarik gabe. Guretzat estiloa oso garrantzitsua da. Helburua ez da gailurra egitea, gailurrera iristeko modua da garrantzitsuena. Leo haitzean interesaturik dago orain, baina etika handia du. Jon Bracey, Nick Bullock eta abar dira alpinista berriak. Badaude ongi eskalatzen duten beste hainbat ere, baina ez dakit zein arrazoirengatik ez dira hain ezagunak.

Alpinista zara eskalatzailer baino gehiago edo alderantziz? Zerk erakartzen zaitu gehiago une honetan?

Lehen gehiago nintzen alpinista, orain denetik egitea gustatzen zait. Baina ez naiz oinez ibili zalea, nahiago dut horma tente batean eskalatu senda batetik ibili baino. Orain harkaitzak erakartzen nau, harrian eskalatzeko; boulderrean, adibidez, gustura ari naiz. Gaur egun espezializaziorako joera dago, eta nik nahiago dut denetarik egin: alpinismoa, horma handiak, izotza... Zortzigarren gradu bide bat eskalatu eta zortzimilako mendi bat igo, denetarik.

«Motibazioa baduzu edozer posible dela islatu nahi izan dut liburuan»

«Himalayan horma handi asko dago librean eskalatzeko. Etorkizuna hor dago»

«Espezializaziorako joera dago, eta nik nahiago aniztasuna: izotza, harria...»


Harkaitzean eskalatzeko dohaiak eta garaierarako geneak ditut. Lagunek esaten didate festetarako geneak ere baditudala. Denetarik, beraz (barrez).

Zein alpinista izan dituzu erreferentzia?

Asko. Boardman, Tasker, Kurtyka, Desmaison, Andy Parkin, Deve Hesleden, Marko Prelez...

Alpinismoaren etorkizuna non ikusten duzu? Zure filosofia ez dator bat egun nagusitzen ari den joerarekin, ezta?

Himalayan horma handi asko dago oraindik estilo libre eta arinean eskalatzeko. Nire ustez, horietan dago etorkizuna. Egia da zor-



andy cave

Euskal Herriko naturak txunditua

Bilbora berriki egin duen bidaiak ez da Euskal Herrira egin duen lehenengoa. Andy Cavek bost hilabete egin zituen Algortan bizitzeko, eta orduetik 12 urte igaro diren arren, ongi oroitzen du garai hura. «Euskal Herriko natura basatia maite dut, baina batez ere jendea; pertsona zintzo eta irekiak ezagutu nituen», dio. Egonaldi hartatik badu atera gabeko arantza bat: «Algortan bizi nintzela ez nuen surfa egin». Dena dela, etorkizunean itzultzeko asmoa du. «Hiru hilabeteko bidaiak egin nahi nuke Euskal Herriko mendiak eskalatu eta surfa egiteko. Historia handia du mendizaleen inguru hauetan eta zerbaitegatik izango da», esan du alpinistak.

tzimila metrotik gorako mendietan espedizio komertzialak eta talde handiak nagusi direla, baina badira bestelako adibideak ere: Steve House, Huber anaiak... Estilo onarekin zailtasunak eta bide teknikoak gainditzean dago etorkizuna. Nola ikusten duzu himalayismoaren egungo egoera? Zer iritzi duzu espedizio handi eta komertzial horien inguruan?

Gorrito ditut finkatutako sokak; eraikin batean lan egitea bezalakoa da. Dena dela, gaur egun espedizio komertzialak saihestezinak dira eta lan ona egiten ari diren mendiko gidari asko dagoela uste dut. Niri leku bakartiak gustatzen zaizkit, lasaiak, mendizale uholde handietatik urrun (Patagonia, Alaska...). Baina errealista ere banaiz: etxea daukat, dirua behar dut bizitzeko eta mendi gidari lanak egin behar ditut.

Stephen Venablesek iaz esana da: «Garai batean pioleta eskuan hartuta igotzen zen; egun, aldiz, jumarra erabiltzen da». Zer gogoeta eragiten dizu?


Nire ustez, ezinbestekoa da galdera hau egitea: «Nola eskalatu duzu mendia? Jumarra erabili duzu edo librean eskalatu egin duzu tontorra?». Goi mendietara eskaladako puntu gorria eraman beharko genuke agian! Eta Patagonian bezala, zirrikituak dauden lekuetan iltzeak erabiltzeari utzi beharko genioke.

Patagoniara joatekoa omen zinen...

Martxoan Txilera joan nahi nuen bai, Leo Houldingekin batera. Bera eskalatzailer gaztea da, indartsua. Baina behatz bat puskatu du, eta ez dut uste oraingo joateko modua izango duenik.

t a r t e a

bakardadea sokalagun



04-05 | erreportaia

Zaldibiako Kapaindegi etxean tresna zaharrak bildu dituzte

06-07 | mendia

Silvia Vidal eskalatzailearekin solasean

10 | elkarrizketa

Maidar Zabalegi musikariari mendiari buruz galdezka

silvia vidal | eskalatzailea

«Menditik justu bizi naiz, baina mendian oso ongi bizi naiz»

Horma handietako eskalatzailea, konpromiso handiko jardueretan zaildua, kasu askotan bakarrik eskalatu... Silvia Vidal ez da ohiko eskalatzailea. Azken bi urteetan Indiako Himalayan irekitako bi bide berrien inguruko proiektzioa eskaini du Bilbon

Ekaitz Agirre

Eskalada bizitzeko modua du Silvia Vidalek (Bartzelona, 1970), eta pasioz bizi du. 1993an eman zituen aurrengo pausoak horma tente batean, Montserratren. Orduetik kontu ezin ahala eskalada egin ditu Yosemite, Karakorumen, Malin, Europako Mendietan, Dolomitean... Horma handietako eskaladarekin gozaten du gehien, eta konpromiso handiko jarduerak ditu gustuko: leku ezezagunetako hormatarretan bide berriak irekitzea, eta askotan bakarrik eskalatu, gainera.

Emakumeari eta mendiari buruz Euskaltelek antolatutako jardunaldietako gonbidatu bat izan da; baina, berak argi dioen bezala, «eskaladak ez du sexurik». Bertan eskaintako proiektzioa azken bi urteetan Indiako Himalayan egindako bi eskaladatan oinarritu du Vidalek. Castle Peak (5.000 m.) mendian, Himachal Pradesh bailaran, 7 d'espases (480 metro, 10 luze, A3+/A4, V+) bidea ireki zuen iaz, horman hamabi egun eta hamaika gau egin ondoren. Bakarrik eskalatu zuen gainera, horrek berez horma handi batean eskalatzeak dakarrenari gehitzen dion konpromisoarekin. 2004an, aldiz, *Mai Blau* bidea, Neverseen Towerren, Eloi Colladorekin. Alpinismoan eta eskaladan abenturarako grina duten eskalatzaileak oraindik badirela erakutsi du Bilbon Vidalek. Aitzakia ederra haren testigantzak biltzeko.

Euskaltelek antolatutako I. Emakumea eta Mendia Jardunaldietan parte hartzera etorri zara Bilbora. Beharrezkoa al da emakumea hi-



tza erabiltzen jarraitzea zuen jardueren inguruan hitz egiterakoan? Gizona eta Mendia izeneko jardunaldiak nekez ikusiko ditugulako galdetzen dizut hori.

Ez litzateke beharrezkoa izan behar. Lehenengo aldia da halako jardunaldi batzuetan parte hartzen dudala, inoiz ez bainaute erakarri. Baina, agian, gai honetaz pentsatzen dudana esateko ordua iritsi zait: niretzat eskalada ez da sexu kontua, eta halako jardunaldiak badira.

Belaunaldi gazteek kirol eskaladara bideratzen dute beren jarduerak, erosotasunerak. Zuk, aldiz, nahiago dituzu horma handiak (*big wall*), abentura, deserotasuna... Zergatik? Zer ematen dizute halako jarduerak?

Litekeena da egiten dudana nire izaeraren isla izatea. Identifikatuta sentitzen naiz horma handietako eskaladarekin, eta horrek horietan sartu eta gozatzeko aukera ematen dit.

Horri, gainera, askotan bakarrik eskalatzen duzula gehitu behar zaio. Zer ematen dizu bakarkako eskaladak? Zer sentitzen da horma batean zintzilik egunak eta gauak igaroko dituzula jakin eta eskalada bati ekitean?

Niretzat bakarrik eskalatzea erronka pertsonala da, hitzaren zentzu zabalean. Ziurgabetasuna da, zalantza, motibazioa, beharra, gogoia... Guztia muturreko egoera batean.

Esan liteke bakardadea sokalagun izatea gustukoa duzula? Zer ematen dizu? Nahiago al duzu bakarrik eskalatu besteren batekin baino?

Baietz esan daiteke. Bakardadea eta bakardade horrek sortzen duen isiltasuna gustuko ditut. Azaltzea oso zaila egiten zaizkidan bizipenak ematen dizkit, nire barneko zati diren bizipenak. Baina nahiago dut beste sokalagun batekin eskalatzea. Guztiak du bere momentua. Une bakoitzean bila-

tzen duzunaren arabera, bakarrik edo lagunekin eskalatu, bietatik jasotzen dut asko.

Bakarrik eskalatzeko joera hori zure izaerarekin bat al dator? Eguneroko bizitzan ere bakartia al zara?

Bai.

Nola planteatzen dituzu bakarkako eskaladak? Izan ere, bakarrik eskalatzeak konpromiso eta zailtasuna areagotzen dio berez *big wall* batean sartzeak duenari. Konpromisoa eskaladan oinarritzea dela esan izan duzu, jolasaren parte dela, baina konpromisoa eta jolasa ez dira soka berean lotzen... Bakarrik eskalada jolas gisara hartzen dut eta jolas horretan nik jartzen ditut arauak. Eta arau horietako bat konpromisoa izan daiteke.

Menditik bizi al zara? Profesionala al zara?

Menditik ozta-ozta eta justu bizi naiz, baina mendian oso ongi bizi naiz. Diru sarrera nagusia mendi-

ko jardueretatik izaten dut, baina beharra dudanean beste lanbide batzuk ere egin behar izaten ditut. Dena den, egunean bizi naiz.

Bilboko jardunaldietan parte hartu duten gainerako emakumeekin komunikabideetan oihartzu handiagoa duten jarduerak egin dituzte: Josune Bereziartuak kirol eskalada, Edurne Pasabanek eta Raquel Perezek Himalayako 8.000 metroko mendiak... Hedabideetan ia ez azaltze hori izan al daiteke horma handietan hain eskalatzaile gutxi aritzeko arrazoiak?

Ez dakit. Nire ustez, horma handietan eskalatzea gaur egungo gizartearen ereduak irudikatzen duenaren kontrakoa da, eta hori da arrazoi nagusia. Horma handietan poliki eskalatzen da; gizartea, aldiz, oso azkar aldatzen ari da. Bi gauzak dauzkaten esanahi guztiekin. Inoiz sentitu al duzu zure eskaladaren bat gehiegi edo gutxiegi balardututela emakumea zarelako? Bai, askotan sentitu dut.

ekhi
mendidenda
Arropa prezio ezin hobean

• Txanurrek eta gaitzak
• Formo polarrak
• Lo zakarrak, mokadak, botak eta ustakak

EKHI mendidenda - 945 135 869
Korrea 118, behea - 01001 Gasteiz (Araba)
mendidenda@yahoo.es

Azken urteetan Indiako Himalayara joteko ohitura duzu. Iaz, bakarrik, 7 d'espases bidea ireki zenuen Castle Peak mendian, eta 2004an Mai Blau bidea Neverseen Towerren, Eloi Colladorekin. Indiako mendiak ez dira eskalatzaileen eta alpinisten ohiko jomuga. Zer erakargarritasun dute zuretzat?

Indiako mendien izaera basatiaz gain, Indiak berak erakartzen nau. Horma handietan eskalatzeko, aproposagoa da Pakistan, baina ez zait gustatzen herrialdea. Indiak, aldiz, txundituta nauka. Bisitatu ditudan gainerako herrien aldean bestelakoa da, bakarra.

7 d'espases (zazpiko ezpata, karta jokoan) irekitzeko hamabi egun eta hamaika gau egin zenituen horman. Benetakoa jolasa izan al zen? Kontaiguzu nolako eskalada izan zen.

Burura datorkidan lehenengo gauza hotza da, hotz izugarria. Eskalada erabat baldintzatu zuen hotzak: izotza fisuratan, plaketan... Neraman pisu guztia ere ama handia izan zen eskaladarako: luzeak irekitzeko sokak, burdinazko traste guztiak igo beharrra... Luze bat irekitzen egon eta mugitu ere ezin nuela izaten nintzen, hotzak eta pisuak eraginda. Bidea, funtsean, artifizialean eskalatu nuen. Zatiren batean librean gehiago eskalatu nezakeela uste dut; baina, aurrez esan ditudan arrazoiak direla medio, ahalegindu ere ez nintzen egin. Hotza eta pisua baldintza handiak izan ziren.


Irakurri dizudanez, Mai Blau irekitzen gogotik sufritu zenuten Eloi Colladok eta biok 2004an...

Bai, denetarik gertatu zitzaizgun. Izarrak ez genituen lagun izan... ez eta eguraldia ere. Hainbeste gauza gertatu zitzaizkigun, non bidea eskalatu eta ireki izana bitxikeria hutsa izan baitzen jarduera osorearen barruan.

Zer gertatu zitzaizuen?

Denetarik. Eskaladari dagokionez, nahiko baldintza gogorrei egin genien aurre, hotzari batez ere. Behin hormatik jaitsita sekulako ekaitza sartu zen bailaran, eta bi aste egin genituen behiko kampalekutik atera ezinda. Metro eta erdiko elurra pilatu zen, eta handik ezingo ginela irten ere pentsatu genuen. Materiala berreskuratzekeo genuen, janaria prestatzeko suarekin arazoak izan genituen...

2001ean ere leku ezezagun eta bakartian izan zinen: Baffinen. Sangtrañ bidea irekizenuen, Frank Van Herreweghe eskalatzailearekin. Turn Weather mendian 1.000 metrotik gorako bidea ireki genuen. Lehenengo 250 metroak finkatu



silvia vidal

genituen, eta behin hori eginda hamabost egun egin genituen horman. Leku bakartia da oso; aurrez beste bide bat bakarrik zegoen irekita. Dena den, gozatu egin genuen, ez genuen arazorik izan. Denboran atzera eginez, 1999an Amin Brakk mendian Sol Solet bidea ireki zenuten Pep Masip, Miguel Puigdomenech eta hirurok. Hori izan al zure jarduera onena? Zenbakiei dagokienez, bai (1.650 m., 6c+, A5); bizipenei dagokienez, aldiz, ez. Nire ikuspegitik, erabat subjektiboa izango naiz, 7 d'espases izan da jarduera onena. Mendi eta horma ezezagunetan eskalatzeko joera duzu. Hori izan al

«Bakardadea sokalagun izatea gustatzen zait, eta horrek sortzen duen isiltasuna»

«Ez emakume, ez gizon: eskaladak ez du sexurik»

«Gaur egun gehiago baloratzen da zer eskalatzeko den nola baino»

daiteke hedabideek zure jarduerak behar adina ez baloratzeko arrazoia?

Ziurrenik, bai. Horretaz gain, gaur egun gehiago baloratzen da zer eskalatzeko den nola baino. Graduek, altuerak, metroek... axola dute. Eta egia da horrek baduela garrantzia, baina badirudi jarduerak baloratzeko orduan konpromisoaren eta igoyeraren baldintzak albo batera uzten dituztela. Horri guztiari, nire izaera gehitu behar zaio, ez du laguntzen, eta emakumea izateari. Batzuetan behar lukeen baino gehiago saltzen du horrek, eta beste batzuetan behar lukeen baino gutxiago.

Leku ezezagun eta bakartietan bide berriak irekitzea. Hori al da zure erronka handiena? Horrek erakartzen al zaitu gehien eskalatzaile ikuspegitik?

Noan tokira noala espedizioa osatzen dugunok bakarrik egotea gustatzen zait, ez dadijende gehiago egon. Era berean, leku ezezagunak direnez eta 6.000 metrotik beherako mendiak, ez dut baimenik ordaindu behar, horrek duen eraginarekin. Dena den, joan izan naiz leku ezezagunetara eta ez ditut baztertzen.

Irekitzeko bide asko geratzen al da Himalayako eta beste mendikate batzuetako horma handietan?

Hala izatea nahi nuke!

2006. urteari begira ba al duzu proiekturik buruan?

Ez zait proiektuez hitz egitea gustatzen forma hartzen duten arte.

Betidanik izan zara kirolzalea, baina kasualitatez hasi omen zinen eskalatzeko. Gaur egun zer da zuretzat eskalada? Kirola, lana, gozatzeko modua...?

Bizitzeko dudan modua da eskalada.

Non hasi zinen eskalatzeko? Non eman zenituen zure lehenengo pausoak?

Etxetik gertu, Montserrat. Horma handietan eskalatzeko gain, mendiko beste jarduerarik egiten al duzu?

Horma handietan, pareta batean sartu eta gau eta egun bertatik jaitsi gabe, espedizioetan nagoenean egin dezaket soilik. Etxean nagoenean librean eskalatzeko dut gehienbat, ia inoiz ez artifizialean. Menditik ibiltzea ere asko gustatzen zait eta, tarteka, mendiko eskia egiten dut. Baina eskalatzeko ematen dut denbora gehien.

Eskalatzeko hasi eta bi urteren buruan Espainiako Mendi Federazioaren Urrezko Pioleta saria irabazi zenuen (1996), Narancoko Principado de Asturias (A4) bidearen errepikapenagatik. Zer garrantzi izan zuen sari horrek?

Bere garaian, eta gaiaren inguruan nuen ezjakintasuna

erabatekoa zenez, ilusio handia egin zidan. Eta, egiari zor, nire eskalada ibilbidea aurkezterako orduan bere balioa du, tituluen arabera funtzionatzen baitugu. Baina, Urrezko Pioletaren bilakaera zein izan den ikusita, lekuz kanpo dagoela uste dut, bai eman zidatenagatik, bai eta gaur egun zergatik ematen ez duten ikusita ere.

Hamar urte igaro dira ordutik. Zer iruditzen zaizkizu halako sariak? Balio erabat galdu dutela uste dut. Une bakoitzean eman nahi zaion balio politikoaren garrantzia baino ez dute. Eta, politika eta mendia soka berekotzat ez ditudanez, ez ditut sari hauek batere ulertzen.

mendia >

Euskal Herria zazpi haizeetara

Zortzi egunean Euskal Herriko zazpi hiriburuak lotu dituzte, oinez, Oskar Aldazabal eta Joxean Ostolaza ibiltariak.

Markinan hasi eta buka, 500 kilometrotik gorako zeharkaldia osatu dute

EKAITZ AGIRRE

Apirilak 27, osteguna. 06:00. Markina, Bizkaia. Oskar Aldazabal eta Joxean Ostolaza mendizaleek lehen urratsa egin zuten; Euskal Herriko zazpi hiriburuak lotzeko lehenengo urratsa. Lagunak, senideak eta Markina atzean utzi, eta Euskal Herria zuten aurretik. Maiatzak 5, ostirala. 03:00. Zortzi egun lehenago abiapuntu izan zuten tokian bertan, Markinan, egin zuten azken urratsa. Bi urrats horien artean, beste milaka, ia 600 kilometrotan banatuta. Donostia, Baiona, Donibane-Garazi, Maule, Iruñea, Gasteiz eta Bilbo, urratsez urrats, ibilian-ibilian, elkarri lotuta, Euskal Herrian inoiz egin den zeharkaldi luzeenean.

Halako ibilaldi luzeetan trebatua da Oskar Aldazabal markinarra, ibiltari aseezina. Oraingoan Joxean Ostolaza debarra hartu zuen lagun erronka berrirako. Erronka potoloa oso. Hego Euskal Herriko lau hiriburuak lotuak zituenez Aldazabalek. Xebe Peñak 1953an egin zuen *Lau Katedralen* bidea errepikatu zuen orain bost urte. Orduetik, buruan zuen egitasmoa. «Hurrengo urratsa Euskal Herri osoko hiriburuak lotzea zela pentsatu nuen. Erronka polita iruditu zitzaidan, eta Iparraldeko ibilbidea prestatzen aritu naiz azken urteotan, mendiko lasterketekin tartekatuta. Ibilbidea zehaztuta, zapatilak jantzi eta hori osatzea baino ez nuen falta», azaldu dio BERRIARI Aldazabalek.

Esan eta egin. Sei eguneko ibilaldia aurreikusitako zuten zazpi hiriburuak oinez lotzeko Aldazabalek eta Ostolazak. Estrategia erabakia zuten: egunean 20 bat orduz ibili, eta 3 edo 4 orduko lo kuluxka motzak tartekatu. Etxeko erosotasunean egindako aurreikuspenak ziren, ordea, eta egunean eguneko ibilia ikusita, atsedean tarte luzeagoak egitea erabaki zuten. Sei eguneko zeharkaldia izan behar zuena zortzi egunera luzatu zen. Dena den, eroso amaitu zuten. «Eramangarria egin zait, uste nuen baino erosoagoa. Bakarrik erritmo azkarra-

goan ibiltzera ohituta nago, baina, zeharkaldia hain luzea izanik, mantsoago ibili gara, eta egun batetik bestera errekupeatzea erraztu du horrek», dio Ostolazak. Iritzi berekoa da Aldazabal ere.

Markinatik abiatuta, Donostia zuten zeharkaldiko lehenengo hiriburu. Eguraldia lagun iritsi ziren Gipuzkoako hiriburura, 12 ordu inguru ibilita. Donostiatik Baionara jo zuten. Ipar Euskal Herriko zatia bertatik bertara aztertutako bideetatik prestatu zuen Aldazabalek: «Endurance Mendiko Lasterketa baliatu nuen zati batzuk lotzeko». Errepidea eta mendiko bideak tartekatu zituzten, nahiz eta nahi baino gehiago ibili behar izan zuten asfaltoan. Baionara apirilaren 28an iritsi, eta Donibane-Garazi eta Maule hurrengo egunean lotu zituzten. Azken horretatik Iruñera ia bi eguneko ibilaldia. Gasteiz, Bilbo... eta Markina. Inoiz ez zuten erretiroan pentsatu.

Aldazabalek 550 kilometro inguruko zeharkaldia prestatu zuen, «baina despisteak eta tarteka galdu egin ginela kontuan hartuta, gertuago izango dira 600 kilometroak». Ibilaldian zehar furgoneta bat zuten atzetik, «ohe eta guzti prestatuta». Dena den, beharrezko atsedena hartzeko nahiago izan zuten bidean egokitzen zitzaizkien landetxe edo aterperen batean lo egin: «Atsedean orduak aprobetxatzea funtsezkoa da. Ongi afaldu, dutxa hartu, ohean lo egin... bi egun baldintza horiek gabe pasa ditzakezu, baina aste osoa, egunean 80 kilometro ibilita...».

Goizeko bostak aldera jaikitzen ziren egunero, eta hankak behar bezala prestatuta hasten ziren oinez, 22:00 edo 23:00 arte. Irunen, Biddarrain, Orbaizetan, Agurainen edota Zeberion lo egin zuten, besteak beste. Azken horretan, baserri turismoa nagusiaren pazientzia bereziki eskertu zuen bikoteak: «Pentsa, 02:00etan iritsi ginen, eta bera zain zegoen afaria egiteko prest».

IBILALDI LUZEETAN TREBATUA. Oskar Aldazabal eta Joxean Ostolaza ez dira hasi berriak ibilaldi luzeetan. Aldazabalen zeharkaldiek oihartzun handia izan dute azken urteotan. Gasteizko Manuel Iradier mendi taldeak antolatzen duen *Hiru Handiak* egitasmoan egin zituen aurreneko urratsak zeharkaldi luzeetan. Gorbeia, Anboto eta Aizkorri mendiak lotzen ditu ibilaldi horrek. Hamar urtean parte hartu ondoren, ez zuen nahikoa Aldazabalek. Ibilbide bera errepikatzeaz aspertuta, aurrez aipatutako hiru



Joxean Ostolaza, lehen planoan, eta Oskar Aldazabal, atzean, Agurain inguruan. JOXEAN OSTOLAZA

mendiei beste bi gehitu zizkien; Txindoki eta Udaltz. 1996. urtea zen, eta berak prestatutako *Bost Handiak* osatu zituen mendizale bizkaitarrak urte hartan. Hori ere ez zuen, nonbait, aski, eta handik urtebetera, Ermio eta Erlo ere sartu zituen ibilbidean. 1998an, azkenik,



«'Lau Katedralen ibilbidea' osatuta, erronka Euskal Herriko zazpi hiriburuak lotzeko behar zuten»

OSKAR ALDZABAL
Mendizalea

Oiz mendiarekin, *Zazpi Handiak* egitasmo hari zortzigarrena ere gehitu zion.


Baina mendiak eta gailurrak lotzeaz gain, bestelako martxa luze asko egindakoa da Oskar Aldazabal. Xebe Peñak 1953an egindakoaren bidetik, Donostiako, Iruñeko,



«Euskal Herria den bezalakoa ezagutu dugu; berezitasun guztiekin, benetakoa eta askotarikoa»

JOXEAN OSTOLAZA
Mendizalea

Gasteizko eta Bilboko hiriburuak lotu zituen 2001ean. Azken abiapuntu hartuta buruan zitzaion lau hiriburu horiek Euskal Herriko beste hiriburuak lotu zituen ibilbide bat diseinatu. Azken hau izan omen da gogorrena, baina baita berezitasun ere: «Zalantzarik gabe, Kopuruan, egun kopuruan... *Handiak* egin nituen eta gogorra izan zen, gogorra handikoa, baina bi egun eta osatu nuen. Hau beste hiru teko txakolina izan da: baina baina era berean berezitasun dugu, berezitasun guztiekin, benetakoa». Gainerako ibiltariak dea gomendatu nahi die Aldazabalek; argibideak emateko dago bera. Eta, noski, hurrengo erronka prestatzeko buruan zuten hasia da dagoeneko. «Hankak behar dira bizitzan egiteko».



Lagunaren garrantzia

«Hainbeste eguneko zeharkaldi batean oso garrantzitsua izaten da pertsona aproposarekin joatea. Ordu asko dira elkarrekin ibiltzen, eta harreman onik ez badago... Alde horretatik, Markinatik abiatu ginenean baino lagun hobeak gara orain»,

dio Oskar Aldazabalek. Baiezkoan da Joxean Ostolaza ere. Era berean, ez dituzte ahaztu nahi izan ibilaldiaren aurretik eta ibilaldian bertan lagun-tza eman dieten lagun guztiak: «Koadrilako lagunaren lagun-tasunik gabe ezinezkoa litzateke».



Oskar Aldazabal eta Joxean Ostolaza, Markinara iritsitakoan. JOXEAN OSTOLAZA

Mejiak eta Ardidek irabazi dute Munduko Kopako lehenengoa

MENDIKO LASTERKETAK ■ Abiatu da mendiko lasterketen Munduko Kopa. Hidalgon (Mexiko) jokatu zen igandean lehenengo proba, eta Ricardo Mejia faborito nagusiak ez zuen etxean hutsik egin. 25 kilometroko ibilbidea osatzeko—1.300 metroko desnibela—, 2:10:28 behar izan zuen Mejiak. Haren atzetik, Miguel Leon Acoltzi mexikarra (2:16:11) eta Jason Loutitt kanadarra sailkatu ziren (2:16:27). Jose Felipe Larrazabalek (2:26:34) eta Xabier Olaberriak (2:28:50) 10. eta 12. bukatu zuten, hurrenez hurren. Nesketan, Monica Ardid katalanak irabazi zuen (2:50:45), eta azpimarratzekoa izan zen Marta Vidal euskal selekzioko kidearen bigarren postua (2:54:14).


Gasteizen, bi hitzordu: Liga eta Taldea osatzeko proba

KIROLESKALADA ■ Euskal Mendizale Federazioak (EMF) antolatuta, bi txapelketa jokatu ziren, igandean, Gasteizko Hegoalden. Euskal selekzioa osatzeko txapelketetan, 14 eskalatzailek parte hartu zuten. Irati Andak irabazi zuen nesketan; mutiletan, berriz, berdindu egin zuten lehenengo postuan Gorka Karapetok eta David Gambusek. Bigarren hitzordua ekainaren 11n dute, Gasteizko Ariznabarran. Gazteen Ligako proban, 18 eskalatzaile bildu ziren. 20 eta 18 urtez beherakoetan mutilak bakarrik aurkeztu ziren, eta Antton Zabalak eta Oier Iribarrenek irabazi zuten. 16 urtez beherakoetan, berriz, Josebe Zarautzek eta Maite Etxezarretak berdindu egin zuten nesketan. Mutiletan, lehen postuan berdindu zuten Asier San Sebastian, Aritz Dominguez eta Aitor Galatasek. Ekainaren 3an dute gazteek hurrengoa, Durangon.

Helikoptero istriputik onik atera dira Dhaulagirin

HIMALAYA ■ Gailurra zapaldu gabe eta sekulako sustoa hartuta itzuliko dira Euskal Herrira Raquel Perez, Willy Barbier, Rikardo Valencia eta Carlos Pauner. Dhaulagiri mendiko oinarritzko kanpalekutik abiatzen ari zirela, helikopteroak istripua izan zuen. Zorionez, inor ez zen zauritu, eta onik irten ziren ezbeharretik. Katmandutik abiatuta gaur bertan iritsiko dira Madrilgo aireportura Barbier eta Perez, eta bihar bertan itzuliko dira Donostiara.

zazpi hiriburuak Lotuta



«Hain ibilaldi luzea egin ondoren... etxe ondoan galdu behar»

Aste oso bateko zeharkaldian, orduak eta orduak ibilian, pasadizo bitxi bat baino gehiago bizi izan zuten Oskar Aldazabalek eta Joxean Ostolazak. «Ibilbideko azken 20 kilometroak koadrilako lagun talde batekin egin genituen. Oiz mendiaren inguruan lainoa zegoen, eta gu solasean gindoazen, zeharkaldiko bitxikeriak eta pasadizoak kontatzen. Etxetik gertu ginen arren, despistatu, eta behar baino hiru edo lau ordu geroago iritsi ginen Markinara. Marka da, gero, hain ibilbide luzean ongien ezagutzen genuen inguruan despistatzea ere...», adierazi du Aldazabalek. Iruñea pasatu eta Gasteizera bidean, Ibero herria pasatuta, entzierroa korritzea toka-

tu zitzairen bi ibiltariei. «Iberotik gora gaudu asko egoten da beti. Kartel bat ere badago: 'Kontuz, animalia arriskutsuak'. Ez genion aparteko garrantzirik eman. Sartu ginen zelaian, eta han ikusi genituen behi, zezen eta gainerakoak txahal jaio berriekin. Haiak, noski, haiena defendatu nahi, eta adar handiko behi bat gugana etorri zen zuzenean. Nekerik, babarik... ez genuen ezer igartzen une horretan. Korrika hasi eta alambrezko hesi bat pasatu arte ez genuen bakerik izan. Ozta-ozta ez zuen Joxean harrapatu», esan du markinarrak. Ez ziren han berriz sartzen ausartu, eta 8 kilometroko zeharkaldia egin behar izan zuten, «8 kilometro estra».

Aldarrikapena **Mont Blanc** puntaraino

Mont Blanc mendia bidetatik igota emakume helduek astaldiaz gozatzeko duten eskubidea aldarrikatu nahi dute Marimendi elkarteok.

EMAITZ AGIRRE

Kontrol aldarrikapenerako tartea eskaintzen duela ukatzen da. Futbol zelai, kiroldegi, pilotaleku eta bestelako eremuetan ohikoak izaten dira izaera anitzeko protestak. Mendia ere aldarrikapenerako txokoa izan da, eta hala da oraindik ere. Euskal Herriko emakume talde batek *Mont Blanc* (4.808) lau bide *Euskal Herriko emakumeentzat* espedizioa antolatu du uztaileko mendizaleentzat eta aldarrikapena lotu nahi duten egitasmoa. Alpeetako mendi gailurak emakume helduek astaldiaz gozatzeko duten eskubidea aldarrikatu nahi dute lau haizeetara.

Egitasmoaren bultzatzailea Marian Arin andoaindarra izan da. «Zaratamon bizi da—, eta iaz *Mont Blanc* mendira egin zuen irteerako abiapuntua. «Aterpetxean geundela, ingurura begiratu eta in mendizale guztiak gizonetzat jabetu nintzen. Emakume guztiak ikusten nituen, baina nire adineko eta kirol mailakorik apenas. Beti kezkatu nau berak. Emakumea bera da askotan halako ametsei uko egiten die eta ez gara geure buruaz fio, edo ez dugu barrigarri geratu nahi...», esan dio BERRIARI Marian Arinek.

Alpeetatik bueltan, eta errealtate burretaz jabetuta, emakumeentzat antolatutako mendi irteera bat prestatzeko ideia bururatu zituen. Mendi emblematikoa izateko gaitasun, zailtasun desberdinetako bidetatik igotzeko aukera ematen du *Mont Blanc*ek. Egokia da Marianek buruan zuen egitasmoa. Baina nori zuzendu irteera? «Neska gazteak mendira joaten direnez, 40 urtetik gorako emakumeentzat prestatzea erabaki nuen. Bigarren baldintza, berriz, eskaldunak izatea da. Euskaraz hitz egin nahi, eta ez nuen halako

«Berdintasuna aldarrikatu dugu emakumeok, baina politikari, lanari lotuta; ez zaio astaldiari erreparatu»

«Lau bide aukeratu ditugu *Mont Blanc* igotzeko, eta guztiek tontorrean bat egitea nahi genuke»

MARIAN ARIN

Mont Blanc mendia igotzeko egitasmoaren sortzailea

proiektu batean murgildu nahi nire ez den hizkuntza batean», azaldu du Arinek. Ekimenaren inguruko idazkia prestatu, eta ezagutzen zituen mendizaleen artean banatu zuen. Hasiern 10-12 laguneko taldea elkartu zen, eta dagoeneko 21 emakumek osatzen dute espedizioa.

Uztailaren 15ean abiatuko dira Euskal Herriatik Suitzara. Saas Fee bailaran egin asmo dute altuerarako girotea, eta handik abiatuko dira *Mont Blanc*era. Uztailaren 20-23 bitartean aurreikusi dute gailurra jotzea. Alpeetako gailur nagusia lau bidetatik igo nahi dute: bi talde iparraldetik abiatuko dira, eta beste bi hegoaldetik. Iparraldetik, Frantziako isurialdetik, bi bide erabiliko dituzte —Aiguille de Gouter eta Aiguille de Midi—, eta hegoaldetik, Italiatik, beste bi —Aiguille de Bionnassay eta Aiguilles Grises—. Helburua lau taldeek *Mont Blanc*en tontorrean bat egitea litzateke, nahiz eta jakin badakiten ez dagoela beren esku.

Zailtasun ezberdineko bideak dira. Hori dela eta, emakume bakoitzak aukeratuko nondik igo nahi duen. «Zailena Bionnassaytik igotzeko jendea animatzea da. Hori da lauretan biderik zailena, III. graduako pausoak ditu, kilometro eta erdiko ertza ere bai. Indartsuenek joan beharko dute», argi-



Mont Blanc (4.807) mendia Alpeetako mendirik garaiena da. ROLAND FRENZEL

tu du Marian Arinek. Prestatzen aspaldi hasi ziren, eta Pirinioetara irteera bat egin zuten martxoan, Tena ibarrera. Ekainean ere beste txango bat prestatu dute, Vignemale mendira.

Orain artean 21 emakume bildu dira egitasmoaren inguruan. Horietako gehienak bizkaitarrak eta gipuzkoarrak dira, baina badira arabarrak eta nafarrak ere. Asmoa, beraz, Ipar Euskal Herriko emakumeren baten parte-hartzea ziurtatzea dute orain. Ane Hernani elorriotarra da taldeko gazteena; ostiralean bete zituen 40 urte. Taldeko zaharrena, berriz, Maria-

je Atxalandabaso gernikarra. «65 urte ditu, baina sekulako sasoiadu», dio Arinek. Gainerakoak bi adin tarte horietako emakumeak dira.

MARIMENDI ELKARTEA EMAITZA. Elkarteek antolatu ohi dituzte ekitaldi eta jarduerak. Hori izaten da ohikoena. Honako kasu hau, ordea, bestelakoa izan da; *Mont Blanc*eko espedizioa izan dute emakumeok Marimendi kirol elkartearen sortzeko akuilua. «Hasierako asmoa espedizioa zen, baina elkar ezagutu ondoren eta gure artean sortu den giroa ikusita, aurrera be-

gira bestelako ekintzak egin ditza-kegula pentsatuta sortu dugu Marimendi», argitu du Marianek.

Emakumeen kirol elkarteak Marimendi, emakumeek sortu eta kudeatutakoa. Kirola, emakumea eta euskara ditu oinarrian, eta helburuak garbi dituzte taldekideek: kirol ekintzen bidez genero berdintasuneko kultura garatzea eta aisialdian eta kirolean emakumeen parte-hartzea bultzatzea. Taldekide izateko baldintzak hiru baino ez: mendizalea izatea, 40 urtetik gorako emakumea izatea eta euskalduna izatea. «Berdintasuna aldarrikatzen dugu emakumeok, baina politikari, lanari lotuta. Astaldiari ez zaio inoiz erreparatu. Formatu txiki eta handian aldarrikatu nahi dugu, gainera; etxetik hasi eta gizarteraino», dio Marianek.

Orain artean *Mont Blanc*eko espedizioan parte hartzeko asmoa duten 21 emakumeek osatzen dute taldea, baina ateak parez pare ireki nahi dizkiete egitasmoarekin bat egin nahi duten emakumeei. «Gure argazkia emakumeek ikusten dutenean, ohartuko dira ez gara beste munduko kirolariak, haien antzekoak gara. Ezberdintasuna da amets egin eta amets hori gauzatzen ausartu gara. Ea *ispilu efektua* lortzen dugun», gehitu du Marian Arinek.



Pirinioetara, Tena ibarrera, irteera egin zuten martxoan. Ekainean, azken irteera Vignemalera egin asmo dute. ANE HERNANI

mendia >

«Jendeak dira garrantzitsuena, ez lekuak»

ANGEL FERNANDEZ Mendi gidaria

Mende laurdena bete du Izadi Artean 'agentziak'. Bidaia-erpiritua bezeroari transmititzeko asmoarekin hasi eta filosofia horri eusten dio Angel Fernandez gidariak, bidaia komertzial eta turistikoetatik haratago.


EKAIZ AGIRRE

Donostia

Saltsa guztietako perrexila. Hala-koxea zen orduan, eta halakoa izaten jarraitzen du oraindik ere Angel Fernandezek. Haurra zela eskolako lagunekin mendira egin zituen lehen irteera haietatik, Patagoniara berriki egin duen azken bidaia arte. Bizitza bera izan du bidaia. Duela 26 urte Izadi Artean agentzia sortu zuenetik turismo hutsetik haratagoko bidaiak eskaintzen ditu; Maroko, Aljeria, Peru, Mali edo beste hainbat herrialdeetako biztanle, kultura eta bizimoduak gertutik ezagutu eta lurralde haietako biztanleekin harremanetan jartzeko modua. Bizipen horiek eraman baitzuten orain mende laurden Angel bera delineatzaile lana utzi eta eskuairarekin lerrotatzen zituen marra zuzenak mendi, bailara, basamortu eta arroila makur eta kurbatuengatik aldatzera. Ehunka bidaia eta beste horrenbeste pasadizo ordutik, naturari, mendiari eta kulturari lotutakoak guztiak ere.

1975ean Afganistanera egin zuen bidaiak erakutsi omen zion bidea. «Gaztea nintzen, 21 urte nituen. Hain zen ezberdina jendea, hain berezia bizimodua. Europa osoa zeharkatu genuen, Iran eta Turkia ere bai, Afganistan arte. Arazo politikoak tarteko ezin izan ginen mendira joan —hori zuten helburua—, baina kultura, bizimodu, jende eta erlijio berriak gertutik ezagutzeak bidaiatzeko harra piztu zidan», esan dio BERRIARI Angel Fernandezek. Azken finean, hori baita benetako bidaiaria ohiko turistatik bereizten duena: «Ezagutzen dituzun jendeek mantentzen dute bizirik bidaiaria».

Bi urte geroago joan zen estreinakoz Perura. Bidaia horretan hasi omen zen mendi gidari lanaren inguruan bizitza antola zezakeela pentsatzen. «Lanean arazok genituen eta ez nengoen gustura. Menditik bizitzeko aukera aztertzen hasi nintzen, eta erosotasuna alde batera utzita, hala



Angel Fernandez, Aljeriako basamortuan. Hura izan omen da gehien txunditu duen lekua. ANGEL FERNANDEZ

hasi nintzen», dio Fernandezek. Ametsa zena 1980an gauzatzen. Izadi Artean. «Lehenengo trekkinga orduan antolatu nuen, Perura Vilcanota mendilerroa. Oraindik ere antolatzen ditut hara bidaiak. Ordutik 26 urte pasatu dira, pen-tsa, eta horretan jarraitzen dut, oroitu du gidariak.

Ametsa errealitate bihurtzen a-tona eta Walter Bonatti izan zituen erreferente. «1905ean Argentinara bidaiatu zuen aitona, eta hortik datorkit agian bidaiatzeko sena. Bost urte egin zituen han, eta bitxia da: ez nuen bera ezagutu, baina Argentina aurtan bisitatu dit. 100 urte pasatuta». Bidaia eta mendiari buruzko liburuak irakurtzeak ere urratsa egiteko ausardia eman ziotela dio, Walter Bonattiren izaera eredugarriak, baten ere «Hark zuen ikuspegiak asko markatu ninduen: alpinista handia izan zen, baina horretaz gain bidaiaria. Alpinismoa egin ondoren lur urrun haiek ezagutzeko balantzen zituen bidaiak, eta nik ere hori egin nahi nuen».

Hasierako urteak, ordea, gogorak eta zailak izan ziren. Lehen urratsak mendi gidari lanetan egin zituen, mendiko irteerak prestatzen. «Pirinioetara eskalatzera antolatzen nituen lehenengo irteerak, baina ez zen nahikoa. Urtean lau irteera prestatzen ziren, bizitzeko adina ez nuen ateratzen», oroitu du Fernandezek. Bete zerbait eskaini behar zuen, eta bidaia alternatiboak prestatzari ekin zion. «Bigarren eskuko Land Rover bat erosi nuen, eta irteera bereziak antolatu nituen: Guarara arroila jaitsierak egitera —aitzindarietako izan nintzen horretan—, Pirinioetan eskaladak eta astebateko trekkingak...». Marokoko mendietara ere orduan antolatu zuen lehenengo bidaia: «Sekulako aurkikuntza izan zen. Mendia, abentura eta bidaia nahastien zizutten. Apenas ateratzen nuen irabazirik, bizitzeko ozta-ozta. Gidaria, txoferra... dena nintzen ni, baina bideak zein izan behar zuten ikusi nuen».

Izadi Artean menditik bizitzeko asmoarekin sortu zuen, jendeari ordura arte existitzen ez zen zerbait eskaintzeko asmoarekin. «Agentzia ni naiz, azken finean. Denetarik egin behar izan dut. Bidaiatzeko dudaren erpiritua bezeroari transmititzen saiatzen naiz». Bereziatasun horrek gidariaren eta bezeroen artean harreman bereziak sortzea eragin du: «Asko lagunak ditut bezero bako. Urteetan errepikatuta ohi dute, eta talde txikiak joaten garenaz, oso harreman

mendia >



Angel Fernandez, eskuinean, Marokora egindako bidaietako batean, Mohamed lagunarekin. ANGEL FERNANDEZ

berezia sortu ohi da gure artean. Haiek gustura daudelako nago ni gustura, eta ni gustura nagoelako daude haiek. Elkarrekintza bat badago».

Lehenengo urte haietan lekuen aniztasuna bilatzen zuen, bidaia aukera ahal bezain zabala eskaini nahi zuen Izadiren bidez Angel Fernandezek, baina urteek aurrera egin ahala nahiago izan du lekuak errepikatzea. «Ez zait gustatzen leku berrietara bidaiak antolatzea. Lan handia eskatzen du bidaia ongi prestatzea, eta ni gustura joaten naiz betiko lekuetara. Perura pozik joaten naiz 1980. urte-tik nirekin bidaiatzen duen sukaldaria ezagutzen dudalako, Marokon ere jende asko ezagutzen dut, eta nirekin bidaiatzen dutenentzat leku haietako jendearekin harremanetan jartzea aberasgarriagoa dela uste dut». Izan ere, «garrantzitsuen jendea da, ez lekua», Fernandezek araberak.

«Mendi irteerak ez ziren bizitzeko nahikoa; bidaia alternatiboak antolatzen hasi eta hori izan da bidea»



Angel Fernandez, bere txokoa, ehunka liburu artean. ANGEL FERNANDEZ

Marokon trekking interesgarri bat, Mali, Aljeriako basamortua, Patagonia eta Peru, batez ere, dira bidaiari dagokienez gaur egun Izadi Arteanen eskaintzak. Bidaietz gain, Pirinioetara irteerak eta eskaladak, Alpeetan mendiko eskia egiteko aukera eta mendian erraketekin ibiltzeko eskaintza ere badu. Bidaietan parte hartu behar dutenei eskaera bakarra egiten die: «Nirekin bidaiatu nahi badute, gauzak argi uzten dizkiet; garrantzitsuenak da dituzten arazoak etxean uztea. Gozatzeraz goaz lehenengo unetik, datorrena horretara etor dadila. Bestela ere sortzen dira arazoak bidaietan eta nik konpondu behar ditut. Horiei 'etxeko arazoak' gehitzen badizkiogu...».

MENDIZALE AMORRATUA. Bidaiaria, abenturazalea, mendizalea, dendaria —Izadi mendi denda ireki zuten Donostian— zer ote den galdeginda, berehala bota du arrapos-

«Beste ezer baino gehiago, mendi gidaria naiz. Gaztetatik barruraino sartu zitzaidan mendizaletasuna»

tua Angel Fernandezek: «Beste ezeren gainetik mendiko gidaria naiz». Izan ere, pasioz bizi izan du mendia eskolatik antolatzen zitzuten lehen irteera haietatik. «Barneraino sartu zitzaidan mendizaletasuna. Gazte hasi nintzen eskalatzen —Felipe Uriarte izan nuen lehenengo irakaslea, Atxarten—. Gurasoek asko sufritzen zuten; soka eta eskalada materiala hartu eta asteburuetan edozein hormara joaten ginenean», gaineratu du. Euskal Herriko mendi eta horma ezagun eta ezezagunak, Pirinioak, Alpeak, Andeak... «Proiektu asko genituen orduan. Nik mapa eta material asko nuen pilatuta, eta ostirala noiz iritsi zain izaten ginen, aurrez prestatutako irteera egiteko».


Martin Zabaletarekin eta Pako Lusarretarekin egindako eskalada haiek gogoan ditu, baina gaur egun denetarik egitea gustatzen zaio: «Denetarik egiten gozatzen dut: eskalada, mendiko eskia, erraketekin ibilita, arrolak jaisten, trekking batean... denetarik egin behar da». Saltsa guztietako perrexila dela ez dio alferrik. «Erronkazalea naiz. Intxaurrendoko Izarra mendi taldea sortzen lagundu nuen, Euskal Mendizale Federazioko mendiko eskiko lehenengo ordezkaria izan nintzen, eta Belagoa-Zuriza eskiko lehenengo zeharkaldia antolatu nuen», esan du Angel Fernandezek.

Gipuzkoako kirolari onenaren izendapena eman zioten 1975ean. «Jean Santeko hego-ekialdeko bide zuzena 8 orduan eskalatu genuen, ohikoena bi egunean igotzea zenean. Martin Zabaletarekin Cilindro mendiaren ipar aurpegian bariante berri bat ireki nuen, Txema bidea Txindokin... beti nuen zerbait buruan». Eta orain ere burua ez du gelditu. Urteen joan-etorriak ez du aldatu.

«Berbereek, tuaregek... ez dute ezer, baina dena eman didate»

Mende laurdenak askorako ematen du. Ehundik gora bidaia egin ditu Angel Fernandezek Izadi Artean sortu zuenetik, eta kontu ezin ahala bitxikeria eta pasadizo bizi izan ditu bidaia horietan. Peru hamar aldiz, lau aldiz Kilimanjaro mendian, Marokora 80 bidaiatik gora, Aljeriara 25 baino gehiago, Patagoniatik etorri berria, Alaskan izana... Ezagutu dituen leku guztietatik basamortua du gustukoena. «Aljeriako basamortuak txundituta utzi ninduen. Benetako basamortuak, basamortuen artean desberdintasunak baitaude. Tuaregen lurraldeak duen handitasuna eta edertasuna konparaezinak dira. Eskalada, gameluetan ibilaldiak... denetarik egin daiteke. Alpinista askok jotzen dute basamortura; ez da kasualitatea», egin du gogoeta. Basamortuak ez ezik, bertako jendeak

egiten omen du ingurua are bereziagoa. «Berbereek, tuaregek... haiek guztiek asko irakatsi didate, ez dute ezer, baina dena ematen dute. Lagunak ditut eta bidaiatzen dutenei balio horiek transmititu nahi dizkiet». Bitxikeria handienetakoa ere hantxe: «Basamortuaren erdian familia batek bere haimari hartu gintuen, eta bat-batean aitak alabarekin ezkondu behar nuela bota zidan». Talde txikiak gidatzen ditu Angel Fernandezek, 10-12 laguneko omen da aproposena. 26 urteko ibilbidean, bezero talde bakarrarekin izan ditu arazoak, Alaskara egindako bidaia batean. «Ez omen nien eskaini espero zutena», dio. Gainerako esperientziak aberasgarriak oso. Izadi Artean agentziaren bidez Fernandezek antolatzen dituen bidaien berri Donostiako Gros auzoko Izadi dendan eskura daiteke.



Bidaietan bertako jendeak eta bizimoduak ezagutzeko aukera eskaintzen du Izadi Artean-ek. Behean, Perun, kaiman bat harrapatu ondoren. ANGEL FERNANDEZ